

KONTRATUAK ERRESERBATZEA

(KPFL, 36. ARTIKULUA) ETA BESTELAKO AUKERAK

BULTZATZEKO GIDA PRAKTIKOA

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Nafarroako Gobernuak asmoa du kontratu-erreserba (KPFL, 36. artikulua) eta bestelako aukerak bultzatzeko aurrerantzean ere, haren departamentuetan, sozietate publikoetan eta Nafarroako toki-erakundeetan, Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez. Horretarako, “Kontratuak erreserbatzea eta bestelako aukerak bultzatzeko gida praktikoa” editatu du.

Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legeak (KPFL), 36. artikuluan, zera ezartzen du: *“Kontratuak arrazoi sozialengatik erreserbatu beharko zaizkie, aurreko urtean adjudikatutako kontratuen zenbatekoaren % 6an gutxienez, irabazi-asmorik gabeko edo ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziei eta laneratze-enpresei”*.

Ezinezkoa bada kontratu bat erreserbatzea, funtsezko aukera gisa proposatzen da irabazi-asmorik gabeko edo ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziak eta laneratze enpresak azpikontratatzeari.



Ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziak, % 90ean edo hortik gora, irabazi-asmorik gabeko erakunde batek edo batzuek sustatuak dira, eta langileen % 70 gutxienez % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonak izan behar dira. **Laneratze-enpresetan**, gutxienez, langileen % 30etik 50era bitartean gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak izan behar dira.



Ondorio praktikoetarako, dakizuenez, laneratze-enpresek eta ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziak zerbitzuak eta jarduerak eskaintzen dituzte enpresa-merkatuan, eta, aldi berean, lan-merkatuan sartzeko zailtasunik handienak dituztenak gizarteratzea eta laneratzea sustatzen dute; hortik dator kontratu batzuk erreserbatzeko premia –eta betebeharra–, ENPLEGU-POLITIKA AKTIBOEN OSAGAIA baita.



Gainerako lanbide-arloekin (Nafarroako fundazioak, ANEL, UCAN, REAS-Nafarroa), **CEISNA**rekin (ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziak biltzen dituen erakundea) eta **EINA**rekin (laneratze-enpresak biltzen dituen erakundea) batera, Nafarroako ekonomia sozialaren sarearen parte dira, **Nafarroako CEPES** erakundeak ordezkatuta

Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusia da Nafarroako Gobernuan ekonomia sozialaren sektorea bultzatzeko ardura duen erakundea, eta, zehazkiago, kontratu-erreserbaz eta bestelako aukerez arduratzen da.

Hori argituta, jakin ezazu gida honen eduki operatiboa hiru ardatzetan antolatuta dagoela


1. **Kontratu-erreserbaren plangintza**..... pág. 3
2. **Kontratuak erreserbatzea** pág. 5
3. **Ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziak eta laneratze-enpresak azpikontratatzeari** pág. 6

1. KONTRATU ERRESERBAREN PLANGINTZA


Plangintza hobetzeari esker, zure lan-eremuko erosketa publikoaren beste atal bat izanen da erreserba-kontratua eta bestelako aukerak aintzat hartzea.

Horretarako, urrats erraz batzuk betetzea gomendatzen dizugu, lana modu planifikatuagoan garatzeko:

1. Saiatu aurreikusten zer kontratu publiko garatuko diren hurrengo urtean zure jarduera-eremuan.
2. Alderatu kontratuaren xedea eta ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziek eta laneratze-enpresek eskaintzen dituzten zerbitzuak, honako hauen bidez:



Nafarroako Gobernuaren kontratu-erreserbaren webgunea. Ekimen sozialeko enplegu-zentro berezien eta laneratze-enpresen direktorioa



Sartu zuzenean QR honetan

reservadecontratos.navarra.es/eu/directorio-empresas



Ekimen sozialeko enplegu-zentro berezien eta laneratze-enpresen zerbitzu-katalogoa



Sartu zuzenean QR honetan

reservadecontratos.navarra.es/eu



Zuzenean harremanetan jarrita EINA eta CEISNarekin

Posta elektronikoz:

- info@einavarra.org
- eugeclouet@ceisna.com

Webgunearen bidez:




Sartu zuzenean QR honetan


reservadecontratos.navarra.es/eu/te-asesoramos

3. Alderaketa egin ondoan eta egiaztatu ondoan erakunde horiek emandako prestazioekin bat datozela, saiatu hautatzen zer kontratutan dagoen erreserba egiteko aukera, azterketa bat egin ondoren, eta bildu itzazu agiri batean, **sorta espezifikoak erreserbatzeko** premia ere aintzat hartuta –posible bada–.
4. Halaber, aztertu zer aukera dagoen ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziak eta laneratze-enpresak azpikontratatzeko, erreserbatuko ez diren kontratuetan.



Plangintza egin bitartean zalantzarik baduzu edo informazio espezifikoak lortu nahi baduzu, jarri harremanetan **EINA**rekin eta **CEISNA**rekin, edo galdetu **Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusia**, helbide elektronikoa honetara idatzita:
reservacontratos@navarra.es 

2. KONTRATUAK ERRESERBATZEA



KPFLaren 36. artikulua arautzen ditu irabazi-asmorik gabeko edo ekimen sozialeko enplegu-zentro berezientzatetan erabiltzeko erreserbatutako kontratuak, eta beste edozein motatako enpresa edo erakunderen parte-hartzea baztertzeko du.

- Erreserbak **kontratuaren xede osoari** eragiten ahal dio, edo haren **sorta bati edo batzuei**, behin egiaztatuta kontratuaren xedea bat datorrela erakunde horiek emandako prestazioekin.
- Kontratu bat erreserbatzeko, prozedura ireki murriztua edo negoziatua erabili daiteke, edo esparru-akordioa edo kontratu txikia; izan ere, muga nagusia da kontratuaren xedea egokia izatea.


Beste edozein kontratutan bezala, izapidetzeko prozesuari jarraitu behar diozu, besterik ez:

1. LIZITAZIOAREN IRAGARKIAN, ohartarazi beharko da erreserbatutako kontratua dela, eta araudi espezifikoak aipatu.
2. Ezin izanen da behin-behineko edo behin betiko bermerik eskatu, justifikatu beharreko salbuespenetan izan ezik
3. “Kontratatzeko gaitasunean” edo “nortasun juridikoan”, eskatu beharko da ekimen sozialeko enplegu-zentro berezia edo laneratze-enpresa dela egiaztatzea.
4. Oro har, azpikontratazioaren gehieneko ehuneko % 20 izanen da¹.

Kontratu bat erreserbatzeko orduan, bi gai garrantzitsu hartu beharko dituzu aintzat:

- Aukera dago kontratu baten barnean **sorta bat edo batzuk** erreserbatzeko.
- Kontratazio arduratsua sustatu beharra dago, **“kalitate-prezioaren erlazio onenaren”** kontzeptuan oinarrituta (KPFL, 64. art.), “eskaintza ekonomiko onuragarriena” kontuan hartu gabe, kontzeptu hori gaindituta baitago. Hala, saihestu behar da ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziak eta laneratze-enpresak prezioan oinarrituta lehiatzea.

1. 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoari buruzkoa; 36.9 artikulua.

Zalantzarik baduzu
edo informazioa behar
baduzu (erreserbatutako
beste kontratu batzuk),
jarri harremanetan
**Ekonomia Sozialeko eta
Laneko Zuzendaritza
Nagusiarekin:**
[reservacontratos@
navarra.es](mailto:reservacontratos@navarra.es) 

3. EKIMEN SOZIALEKO ENPLEGU ZENTRO BEREZIAK ETA LANERATZE ENPRESAK AZPIKONTRATATZEA

Kontraturen batean ezinezkoa bada erreserba egitea, ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziak eta laneratze-enpresak azpikontratatzeko aukera aztertu eta sustatu beharko da, halako erakundeek ematen dituzten zerbitzu osagarrietan, honako hauen bitartez:

- Kontratuak **exekutatzeko baldintza bereziak** edo eskakizun sozialak ezartzea (KPFLaren 66., 106. eta 105. artikulua), kontratuaren xedeari loturik (kontratuaren prestazioarekiko harremana). Nahitaezkoa da gutxienez exekuzio-baldintza berezi bat –edozein– ezartzea. Enpresarentzat betebeharrak izan behar dira (azpikontratazio horretan), eta enpresa lizitatuak bere gain hartuko du eskaintza aurkeztean.
- **Adjudikazio-irizpide sozialak** erabiltzea (64.6 art.); guztizko puntuazioaren % 10eko haztapena eduki beharko dute gutxienez ere (zeharkako betebeharrak), eta enplegu-zentro bereziekin eta laneratze-enprekin azpikontratatzeko barne hartu dezakete.
- Bi kasuetan, ezinbestekoa da enpresa adjudikaziodunek kontratua **betetzeko eta egiaztatzeneko mekanismoak** ezartzea.



KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK ARLO SOZIALEAN:

Lizitacioa:

- “Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren adjudikazio-prezioaren % X gutxienez azpikontratatu beharko dio laneratze-enpresa bati edo ekimen sozialeko enplegu-zentro berezi bati”
- Garrantzitsua da lizitatzailerak argi eta zehatz ezartzea, eskaintzan, nola egingen den azpikontratazioa (egin beharreko lanak eta baja aurreko zenbateko ekonomikoa)

Egiaztatzea:

- **Adjudikazio-fasean**, enpresa adjudikaziodunak deklarazio nominal bat aurkeztu behar du, azpikontratazioari buruzko datu guztiekin
- **Exekuzio-fasean**, enpresa adjudikaziodunak faktura eta egindako ordainketaren frogagiria aurkeztu behar dit
- **Exekuzio-fasean**, azpikontrataturako faktura edo fakturak zuzenean ordaintzeko aukera dago, eta kontratuaren baldintza partikularretan jaso beharko da.

Informazioa:

- Exekuziorako baldintza berezi bat sartzen baduzu (laneratze-enpresak edo ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziak azpikontratatzea), eman horren berri Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusiari, eta bidali Nafarroako Gobernuaren Kontratazio Atarian kontratuak duen esteka, helbide honetara: reservacontratos@navarra.es

ADJUDIKAZIO IRIZPIDE SOZIALAK:

Lizitazioa: oinarrizko irizpidea.

- “Enpresa edo erakunde lizitatzailerak X puntu emanen zaizkie, baldin eta konpromisoa hartzen badute kontratuaren adjudikazio-prezioaren ehuneko bat laneratze-enpresei eta/edo ekimen sozialeko enplegu-zentro berezietan azpikontratatzeko

Egiaztatzea:


- **Lizitazio-fasean**, ez eskatu nahitaez “erantzukizunpeko adierazpen” bat aurkezteko, erakunde espezifiko baten (laneratze-enpresak eta ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziak) sinadura daramana; aski da eredu normalizatu bat aurkeztea, non enpresak irizpide hori betetzeko konpromisoa hartzen baitu (edo ez).

Egiaztatzea:

- **Adjudikazio-fasean**, enpresa adjudikaziodunak deklarazio nominal bat aurkeztu behar du, azpikontratazioari buruzko datu guztiekin
- **Exekuzio-fasean**, enpresa adjudikaziodunak faktura eta egindako ordainketaren frogagiria aurkeztu behar ditu.
- **Exekuzio-fasean**, azpikontrataturako faktura edo fakturak zuzenean ordaintzeko aukera dago, eta kontratuaren baldintza partikularretan jaso beharko da.

Informazioa:

- Adjudikazio-irizpide bat sartzen baduzu (laneratze-enpresak edo ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziak azpikontratatzeko), eman horren berri Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusiari, eta bidali Nafarroako Gobernuaren Kontratazio Atarian kontratuak duen esteka, helbide honetara: **reservacontratos@navarra.es**



Ez ahaztu, kontsultatu
NAFARROAKO GOBERNUAREN KONTRATU ERRESERBEN
 webgunea

reservadecontratos.navarra.es/eu



Sartu
 zuzenean
 QR honetan

